



# **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

**Garraio eta Herri Lan Saila**


# PARTEHARTZAI LEAK

Planaren eraginpean


Borondatez parte hartzeko aukera

Lanpostuetan DD izateaz gain, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenak.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten gainerakoak.



■ Planetik kanpo   ■ Eragin zuzena   ■ Borondatez



## DIAGNOSI OROKORRA

### DIAGNOSI KUANTITATIBOA

- Sail osoko erabilera datuak atalez atal bildu ziren.
- Txantiloia erabili zen ataletako lanjardunak, harremanak eta agiriak identifikatu eta erabiltzen den hizkuntza zehazteko.

### DIAGNOSI KUALITATIBOA

- Atal eta maila ezberdinetako langileen lan-taldea sortu zen.
- Erabileran eragiten duten alde positiboak eta negatiboak identifikatu ziren.

- AMIA matrizen metodologia erabili zen

Ahuleziak

Mehatxuak

Indarguneak

Aukerak

- Parte hartzea esperientzia positiboa izan zen langileentzat.

## **BANAN BANAKO DIAGNOSIA**

### **AZTERKETA KOMUNIKATIBOA**

#### **Zer:**

Langilearen lanjardunen inguruko azterketa: zer komunikatzen den, nola, norekin eta zenbatero adierazten da.

#### **Helburua:**

- Langileen prestakuntza beharra definitzea, eta prestakuntzarako helburuak zehaztea.
- Egokitu beharreko agiriak antzematea.
- Erabilera erraztuko duten baliabideak zehaztea (terminologia landu, kontsulta materiala euskaratu,...).

## HELBURUAK ETA EKINTZAK ZEHAZTU

### HELBURUAK

- Euskararen erabilera kanpoko zein barrukoa sustatu.
- Sailaren kanpo proiektioan euskararen erabilera gehitu.
- Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu.

### EKINTZAK

- Planaren komunikazioa.
- Hizkuntza irizpideak txertatu Saileko zenbait ekintza arlotan.
- Euskararen erabilera sustatu:
  - ✓ Erabiltzearen aldeko sentsibilizazioa landu.
  - ✓ Erabiltzen dutenekiko errekonozimendua landu.
  - ✓ Euskara eskaini herritarrei eta gainerako administrazioei.
- Langileak gaitu euskara erabiltzeko.
- Baliabideak jarri langileen esku.

## PLANA ONARTU

**SAILEKO HIZKUNTZA**  
**OFIZIALEN KUDEAKETA**  
**BATZORDEA**

Zuzendariak

Lan-taldearen ordezkaria

Euskara teknikaria

Itzultzailea

HPSren ordezkari bat

**ZUZENDARITZA**  
**KONTSEILUA**

Sailburua eta Sailburuordea

Zuzendariak

Aholkulariak

## KOMUNIKAZIO KANPAINA

HPSk Eusko Jaurlaritzan egin duen kanpainan Saileko langile batek parte hartu izanak eragina izan du.

- Banatutako materiala jende gehiagok eskatu du.
- Aitzakia izan da erabilera planen kontua modu informalean ere komentatzeko eta langileen artean zabaltzeko.

## **ABIAN JARRI DIREN EKINTZAK**

### **Mintza-taldeen dinamizazioa**

#### **Norentzat:**

- Hizkuntza eskakizunen bat egiaztatua izan arren, ahozkoan euskara erabiltzeko zailtasunak dituztenentzat.

#### **Helburua:**

- Ahozkoa landu.
- Euskara erabiltzeko ohitura hartu.

#### **Dinamika:**

- Ordu beteko saioak astean behin, gai baten inguruan.
- 4 laguneko taldeak, hizkuntza-maila ezberdinetakoak.

#### **Emaitza:**

- Langileak gustura aritu dira.
- Taldekideek taldetik kanpo ere euskara erabiltzen dute euren artean, baina ez gainerako langileekin.

## **ABIAN JARRI DIREN EKINTZAK**

### **HEko azterketa prestatzeko ikastaroa**

#### **Norentzat:**

- Hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar eta klasera joan ezin direnentzat.

#### **Helburua:**

- Batez ere, idazlana lantzea.

#### **Dinamika:**

- Hizkuntza eskakizun bakoitzeko talde bat.
- Bi orduko saioak astean behin.
- Gramatika eta estiloaren inguruko ariketak landu dira.

#### **Emaitza:**

- 1. eta 2. HEko taldeetan, oso onak. 3. HEkoan, aldiz, ez da eraginkorra izan.

## **ABIAN JARRI DIREN EKINTZAK**

### **TALDEKAKO TREBAKUNTZA**

#### **Norentzat:**

- 2. edo 3. HEhun administrari eta administrari laguntzaileentzat.

#### **Helburua:**

- Agiri labur eta errazak euskaraz egiteko gaitasuna eskuratu.

#### **Dinamika:**

- Astean bi orduko saio bat.
- 4 laguneko taldeak, maila berdintsukoak.
- Batez ere estiloa eta testugintza landu dira.
- Bukatu ondoren, lanean aritzeko hizkuntza aholkularitza eskaini zaie.

#### **Emaitzak:**

- Gehienei lanean hasteko balio izan die.
- Ondorengo hizkuntza aholkularitza ezinbestekoa izan da ikastaroari etekina ateratzeko.

## ABIAN JARRI DIREN EKINTZAK

### BANAKAKO TREBAKUNTZA

#### **Norentzat:**

- 3. edo 4. HEhun teknikarientzat.

#### **Emaitzak:**

- Langileen asebetetze maila handia da. Orokorrean, ondo aprobetxatzen dute eta oso baliogarria zaie lanean.
- Ondorengo hizkuntza aholkularitza ezinbestekoa da.

#### **Hutsegiteak:**

- Helburua jartzerakoan aintzat hartu ez izana langileak bere buruaren gain duen konfiantza-maila.

## **ABIAN JARRI DIREN EKINTZAK**

### **BESTELAKOAK**

- Protokolo bat ezarri da langile etorri berriei, eragindakoak direnean edo borondatezkoak izan daitezkeenean, planaren berri emateko.
- Dokumentuak egokitu eta, ahal izan denean, txantiloiak egin dira.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zabaldu dira langileen artean.
- Trebakuntzaz gain, bestelako hizkuntza prestakuntza berezitua: birziklatzeko ikastaroak eta administrazioko hizkerari buruzkoak, IVAPek eskainita.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Langileak dira planaren oinarri eta **langileei eragiten dien edozerk du eragina planean ere**: motibazioak, exijentziak, lan-baldintzak, laneko gorabeherak, ea.
- Emaitzetan eragin handia du langileak sentitzen duen **exijentzia-mailak**, kanpokoak zein barrukoak.
- Erakundeko arduradun eta karguek, plana onartzeaz gain, **inplikatu eta plana bultzatu** egin behar dute.
- **Euskara erabiltzea ezin da borondate kontua izan**, administrazio elebidunean langileen zereginetan sartzen da. Erabilera administrazioak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitateari lotu behar zaio.
- Prozesu honen benetako emaitzak epe luzera baino ez dira ikusiko.